

PROGRAMAZIO LABURRA

IKATETXEAREN IZENA	OLABIDE							2017-18			
ARLOA / GAIA	Espainia eta Euskal Herriko Historia						DATA				
ETAPA - MAILA	1 DBH		2 DBH		3 DBH		4 DBH		1 BATX.	2 BATX.	X

1	HELBURUAK: GUTXIENGO GAITASUN MODUAN DEFINITUAK										
<p>1. Euskal Herriko eta Espainiako garapen historikoaren barruko gertaerak, etapak, prozesuak, arazoak eta protagonistak identifikatzea, aztertzea, azaltzea eta denboran kokatzea, horiek historian eta kulturaren izandako esangura, gaur egun edukitako ondorioak eta etorkizuneko proiektzioa baloratzea, norberak dituenekin bat ez datozen iritziekiko errespetua eta tolerantzia adieraziz.</p> <p>2. Era askotako gertaera historikoen arteko loturak eta prozesu nagusiak orokorrean ulertzea, horien zergatiak aztertzea eta aldaketak nahiz iraunkortasunak eta lurraldeen arabera berdintasunak zein desberdintasunak bereiztea: halaber, hurbileko edo urruneko testuinguru espazial, kultural eta politikoeikiko elkarreraginak aztertzea.</p> <p>3. Oraingo gizartearen ezaugarriak, gatazkak eta erronkak ezagutzea, baita horien jatorri historikoak ere, eta talde-proiektu nagusiak baloratzea, elkarrizketaren eta demokraziaren aldeko jarrera mantenduz, arazoak konpontzeari dagokionez; gainera proiektuok gauzatzea, ikuspegi berdintzaileak eta tokian tokikoak gaindituz, Estatuko nazioen aniztasunean eta Euskal Herriko lurraldeen aniztasunean oinarrituz, Europa eraikitzeko prozesuko partaidetza baloratuta.</p> <p>4. Oraingo euskal gizartearen irudi anitza integratzailea eraikitzea, eta Euskal Herriko bilakaera historikoaren ikuspegi orokorra lortzea barruko heterogeneotasuna aintzat hartuz; era berean, denboran zehar lurraldeen eta herrien nahiz errealitate historikoen artean mantendutako harremanak baloratzea.</p>	<p>5. Konpromisozko kontzientzia arduratsua eta aktiboa garatzea, Euskal Herriko eta Espainiako arazoei dagokionez, batez ere eskubide demokratikoen zein eskubideen defentsan, eta bakearen eta ingurumenarekiko errespetuaren nahiz kontserbazioaren defentsan, eta era guztietako diskriminazioaren bazterketan ere bai.</p> <p>6. Diziplina honetako ikerketaren eta metodo zientifikoaren funtsezko elementuak ulertzea eta ariketak egitean, problemak ebazten eta ikerketa nahiz laburbiltze txikiak garatzean aplikatzea (hainbat eratako informazioak aztertu, konparatu eta integratzen dituzten ikerketak); halaber, iturrien zeregina eta historialariaren eginkizuna baloratzea.</p> <p>7. Oinarrizko kontzeptu historikoak ondo erabiltzea, eta informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiltzea, informazio historikoak bilatzeko nahiz aztertzeko, norberaren lanak sortzeko eta emaitzak jakinarazteko.</p> <p>8. Oraingo gizarteari eta Euskal Herriko nahiz Espainiako iragan historikoari buruzko ideiak arrazoitzea, ideiak modu kritikoan aztertzea (informazio berrietan oinarrituz, eta estereotipoak eta aurreiritziak zuzenduta) eta azterketa historikoa behin eta berriro landu beharreko prozesu iraunkorra dela ulertzea.</p>										

2 EDUKIEN DENBORALIZAZIOA											
ORD.	1. ebaluazioa	ORD.	2.ebaluazioa	ORD.	3. ebaluazioa						
10	1. XVIII. Mendea: Aintzinako Erregimnean, Erreformismoa eta Ilustrazioa.	10	4. Berrezarpen moderatua (1875-1902)	10	8. Frankoren diktadura (1939-1975)						
15	2. Erregimen Zaharraren krisia (1788-1833)	10	5. Alfonso XIII.aren erreinaldia (1902-1931)	10	9. Trantsizioa (1975-1982)						
15	3. Espainia Liberalaren eraikuntza (1833-1874)	10	6. Bigarren Errepublika (1931-1936)	10	10. Demokrazia 1982tik aurrera sendotzea						
		10	7. Gerra zibila (1936-1939)								

--	--	--	--	--	--

3	METODOLOGIA
Deduktiboa	

4	BAILABIDEAK
TESTU LIBURUA: Historia	EDITORIALA: Zubia-Santillana
Gaien eskemak	
Bideak	
Pelikulak	
Eleberrri historikoen zerrenda bat emango zaie ikasleei, bertotik nahi dituztenak aukeratzeko. Errenzentsio bat egin beharko dute eta kontuan izango da kurtso bukaerako nota igotzeko.	

5	EBALUAZIO SISTEMA					
KALIFIKAZIO IRIZPIDEAK						
1.Euskal Herriko eta Espainiako historiaren oinarrizko kontzeptuen definizioa ematea, horren barruan kontzeptualizatzeko historikoaren ezaugarri bereziak sartuta, eta gertaera berberari buruzko interpretazioak egiteko aukera eta horiek azterketa kritiko baten menpe jarri behar.	4.Euskal Herriko lurraldeek Espainiarekin izandako harremanen eta egituratzeko moduen bilakaera aztertzea; gainera, aldi historiko bakoitzean (batez ere, oraintsueneko aldietan) izandako gatazken zailtasunak eta horiei emandako soluzioak aztertzea.					
2.Euskal Herriko eta Espainiako historiaren aldaketa eta iraunkortasun nagusiak azaltzea; aldaketa nagusien faktoreak eta ezaugarriak aztertzea, Historia eta azterketa historikoa etengabe lantzen den prozesutzat ulertzeko	5.Lurralde eta historiako faktore anitzek, oraingo euskal nortasun konplexuan eta heterogeneoan izandako eragina onartzea, ulermen murriztaileak eta estereotipatuak gaindituz, eta bilakaeraren prozesu eta erritmoak ulertzea.					
3.Euskal Herriko eta Espainiako historiaren oinarrizko eskema egin eta azaldu, horren barruan protagonista, gertaera tea prozesu politiko, ekonomiko, sozial eta kultural nagusiak sartuta; horiek kronologian eta espazioan kokatu, eta nazioarteko testuinguruekin lotu.	6.Ikerketa historikoaren metodoaren teknikak aplikatzea, ikerketa, oinarrizko edo bigarren mailako iturrietan oinarrituz					
KALIFIKAZIOEN BALIO PORTZENTUALA	KONTZEPTUAK	%45	PROZEDURAK	%45	JARRERAK	%10

6	BERRESKURAPEN SISTEMA
Ebaluazioren bat suspendituz gero, errekupeazio-azterketa bat egingo da. Azterketa hau suspendituz gero, nahikotasuneko azterketetan beste aukera bat izango da. Nahikotasunean suspendituz gero, Azken azterketan kurtso osoko materia sartuko da. Gaingituz gero, kurtsoa gaingituta bezala emango da.	